

Hasiera / LITERATURA / Karlos Gorrindo idazleak "Funanbulistaren beldurra" aurkeztuko du gaur

LITERATURA

Karlos Gorrindo idazleak "Funanbulistaren beldurra" aurkeztuko du gaur

2020-06-03




Funanbulistaren beldurra ([Erein](#)) lana aurkeztuko du Karlos Gorrindo idazleak streaming bidezko aurkezpenean, gaur, ekainak 3, 11:00etan. Hauxe duzue sartzeko [esteka](#).

Ez da erraza zauriak erakutsiz idaztea, ez da erraza ispluaren aurrean jartzea, urteen iragaiteari aurre egitea eta gertakarietara orduko pentsaerarekin hurbiltzea. Gorrindok hamasei urteko bere kartzelaldiaren kronika egin du, material humanoa eta literarioa erabiliz.

Liburuak bere baitan dakarrena pentsamendu eta filosofia baten bilakaera da, pertsonal eta humanoa, bilakaera politikoa. Baina ez, oster, bilakaera ideologikoa. Testuinguruak garrantzi handia du bilakaera horretan.

Idazleak berak dio, "nitasunetik gutasunera dagoen jauzia hasieran eta gutasunetik, berriro, nitasunera. Nor garen eta zer garen baldintzatuta egoten dira. Horrela soilik emango zaio esan eta egiten duzunari dimentsio eta ulergarritasun handiagoa. Ekintza bat berez eta bere horretan, ona edo txarra izan daiteke, goratzekoa edo gorrotatzekoa. Baina definizio horiek erabat alda daitezke testuinguru jakin bat ematen bazaie. Edo ez. Hirurogeita hamarreko azkenaldeko eta lauogeiko hamarkadako konbulsio politikoa testuinguratzen ez badugu, errealitatea distorsionatuta agertuko litzaiguke begietara, eta giro hura salbajadatzat ulertuko lukete askok. Behar bezala testuinguratuta: Franco diktadorearen azken fusilatzeak. Franco hil, frankismoaren jarraipen maskaratu, demokrazia tutelatu, gure herriaren askatasun egarria. Txiki Benegas Autodeterminazioa goiburu zuen pankartaren atzean Bilboko manifestazio batean, ETaren jarduera armatuak gizartearen eraldaketa ekarriko zuen sinesmena... Hori guztia kontua hartuta eta testuinguratuta ulertzen da erabilera armatuaren gorakada eta gazte jendeak bide hori aukeratzeko hartutako erabakia".

Partekatu



Fas Zineklubak "Wajib" filma eskainiko du online



BilbaoArtek Kenji Mizoguchi zuzendariari eskainitako zikloa berrabiatuko du


Antzeko artikulak



Bihar, Bernardo Atxagaren liburu berriaren online aurkezpena, Bilbon



Julen Belamuno idazleak "Hotz industrial" ipuin bilduma aurkeztuko du



Idaztearen grinaz

Utzi erantzuna

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko.

Izena

E-posta

Webgunea


[Bidali iruzkina](#)

Gure Twitter

- Bihar, Bernardo Atxagaren liburu berriaren online aurkezpena, Bilbon <https://t.co/6DIT4laK1u> @BilbaoKultura <https://t.co/cfGo1YrojP> Duela 19 ordu
- "Open Itinera FIG Bilbao" erakusketa birtuala ikusgai, Zornotzan <https://t.co/pxudYX5wR> @ametxzornotza @figbilbao <https://t.co/wtscAvmSzQ> Duela 20 ordu
- BilbaoArtek Kenji Mizoguchi zuzendariari eskainitako zikloa berrabiatuko du <https://t.co/zlf77CGf34> @BilbaoArte <https://t.co/8kp8QNNfrj> Duela 23 ordu

[Jarraitu Twitter-en](#)

Gure Facebook




Azken Albisteak



"Open Itinera FIG Bilbao" erakusketa birtuala ikusgai, Zornotzan



BilbaoArtek Kenji Mizoguchi zuzendariari eskainitako zikloa berrabiatuko du



Karlos Gorrindo idazleak "Funanbulistaren beldurra" aurkeztuko du gaur



Fas Zineklubak "Wajib" filma eskainiko du online

Gehien ikusitako albisteak

2020-06-03

Bihar, Bernardo Atxagaren liburu berriaren online aurkezpena, Bilbon


2020-06-03

"Open Itinera FIG Bilbao" erakusketa birtuala ikusgai, Zornotzan

2020-06-03

BilbaoArtek Kenji Mizoguchi zuzendariari eskainitako zikloa berrabiatuko du

Aldatutako azken albisteak



Laster gure buletina...